



ALKATETZAREN DEKRETUA. Zk.: 2020 / 162

Gaia : **KORONABIRUSA**
Udaleko ezinbesteko zerbitzuak

Ikusita COVID-19 koronabirusak EAEko lurralde osoan izandako aurrerapena.

Ikusita 2020/463 Errege Dekretuak dioena.

Ikusita martxoaren 29ko 2020/10 Errege Dekretu-Legea eta, bereziki, bere lehen xedapen gehigarria.

Eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.1 artikuluan, ezarritakoaren arabera

EBATZI DUT

1. Villabonako Udalak mantendu beharreko ezinbesteko zerbitzu publikoak honakoak dira:
 - Udaltzaingoa.
 - Gizarte zerbitzuak, oinarrizko edo premiazko zerbitzuei dagokienez.
 - Garbiketa zerbitzuak.
 - Obra-brigada, garbiketa eta gizarte zerbitzuei laguntza emateko eta premiazkoak diren gainerako lanak burutzeko.
 - Hilerria.
 - Idazkaria eta kontu-hartzailea, oinarrizkoak diren gaietarako.
 - Ezinbesteko zerbitzu horiek funtzionamenduan egoteko beharrezkoa den laguntza tekniko eta administratiboa, hala nola premiazko telefono-arreta.
2. Zerbitzu horietako langileak aurrez aurre lan egin ahal izango dute, telelanaren bidez lan horiek burutu ezin dituztenean.
3. Ezinbesteko zerbitzu publikoetan lan egiten ez duten gainerako langileek telelanaren bidez lan egin ahal izango dute.
4. Erabaki hau udaleko langileei eta langileen ordezkariak jakinaraztea, eta udaleko web gunean argitaratzea.
5. Dekretu honen berri hurrengo osoko bilduran ematea.

Horrela agintzen eta sinatzen du Xabat Laborde Echabe Alkateorde jaunak, Villabonako udal-txean, 2020ko martxoaren 30ean.-

ALKATEORDEAK,

Izp.: Xabat Laborde Echabe